

# Proiektuetarako jarduerak | 3. Blokea: Interakzioa

Bigarren Hezkuntza. 12 - 15 urte

## Eztabaidak arrainontzian



**Bigarren Hezkuntza**

12 - 15 urte



**Maila**

Ertaina



**Denboralizazioa**

12 saio

- 1. Fasea: 1 saioa
- 2. Fasea: 7 saio
- 3. Fasea: 4 saio



**Kideak**

2 kide

### JARDUERAREN DESKRIPZIOA

Nazioarteko ekipoetan antolatuta, ikasleek eztabaidagaiak proposatu eta sei hautatuko dituzte. Informazioa bilatuko dute eta aldeko eta kontrako argudioak prestatuko dituzte. Eztabaidak bideokonferentzia bidez egingo dira, bi lurraldetako ikasgelen artean edo ikastetxe bakoitzean; bideoan grabatuko dira.

Azkenik, nazioarteko ekipo bakoitzak artikulua idatziko du. Ikaskideek ebaluatu egingo dute guztien artean prestatutako argudioak erabiliz. Saio bakoitza amaitutakoan inkesta bat egingo da eta gehiengoaren iritzia jasoko da.

### JARDUERAREN XEDEA

- Pentsamendu kritikoa, oratoriarako gaitasuna eta argudiatzeko gaitasuna garatzea idatzizko eta ahozko testuen bidez.
- Taldearen barneko eztabaida bultzatzea interesa piztuz eta taldekide guztien partaidetza sustatuz.

## JARDUERAREN GARAPENA

### 1. Fasea: Prestatzea

#### 1. Urratsa: Gaiak proposatzea

- Irakasleek 3 ikaskideko talde nazionalak sortuko dituzte. Talde nazionalak nazioarteko ekipoetan sartuko dira.
- Triciderren iritzi-inkesta bat sortuko dute ikasleek gaiak proposa ditzaten. Gero, proiektuko sei saiotan eztabaidatuko dira.



- 1. orrialde nagusia irekiko da. “ZERTAZ HITZ EGINGO DUGU?” izena izango du eta jarraibideak eta Triciderreko iritzi-inkesta txertatuko dira.



- Ikasle guztiek gehien interesatzen zaizkien hiru gaiak bozkatuko dituzte. Bozketan, haien izen-abizenak idatzi beharko dituzte.

#### 2. Urratsa: Nazioarteko ekipoak sortzea

- Irakasleek foro bat irekiko dute iritzi-inkestan bozka gehien jaso dituzten sei eztabaidagaien hariekin. Gai bera joratu nahi duten talde nazionalak batu eta nazioarteko ekipoak sortuko dira.



- Irakasleek 2. orrialde nagusia irekiko dute. “IKERKETARAKO EKIPOAK” izena izango du eta, bertan, honakoak jasoko dituen taula bat txertatuko dute: gaiak, talde nazionalen izenak eta taldekideenak.



### 3. Urratsa: Ebaluazio-errubrikak sortzea

- Irakasleek bi errubrika sortuko dituzte: bata, eztabaidarako eta, bestea, argudio-testurako.
- Gomendatzen da Jaume Feliuk sortutako Corubrics txantiloia erabiltzea. [Esteka](#) honetan topa dezakezu. Tresna horrekin autoebaluazioa, ko-ebaluazioa eta kalkulu-orri baten (Drive) bidezko ebaluazioa egin daitezke. Kalkulu-orriak erabiliz, galdetegiak sortu eta, errubrikak sortu ondoren, batezbestekoak era automatikoa kalkulatu daitezke. Sakatu [hemen](#) eztabaidarako errubrika ikusteko. Beharrezkoa da dokumentuaren kopia bat sortzea errubriken ko-ebaluaziorako tresnan sartzeko.
- 3. orrialde nagusia sortuko da. “EBALUAZIO-ERRUBRIKAK” izena izango du eta, bertan, galdetegiak txertatuko dira.



- Errubrikak irakurriko dira eztabaidatzen eta iritzi-artikulua idazten hasi aurretik. Horrela, jardueraren ebaluazio-irizpideak zeintzuk diren jakiteaz gain, jarduera egiteko gida bat izango da.



## 2. Fasea: Garatzea

### 1. Urratsa: Ikertzea

Ekipo bakoitzeko talde nazionalek aukeratutako gaia ikertuko dute. Gaiaren aldeko eta kontrako argudioak emango dituzte aldez aurretik irakasleak sortu duen inkestan.



## 2. Urratsa: Eztabaidak arrainontzian



Ikastetxe bakoitzean, web kamera bat gailu batean bideokonferentziak egiteko

- 4. orrialde nagusia irekiko da. “EZTABAIDA-SAIOAK” izena izango du eta jasoko ditu eztabaidatzeko jarraibideak eta horma digital bat jarduerari buruzko irudiak eta bideoak txertatzeko.
- Saio bakoitzean, eztabaida bat egingo da. Ikasle guztien artean prestatuko da eta hasierako orrialdean ekipoek Triciderren emandako informazioa erabiliko dute.
- Bi modalitate egongo dira, ikastetxeen baliabide teknikoan arabera.

### 1. MODALITATEA: Eztabaidak Twinspace bideokonferentzia bidez

- Arrainontziaren talde-dinamika erabiliko da. Ikasgelaren erdian hiru aulki jarriko dira eta lurralde bakoitzeko bi ikasle eseriko dira haietan. Gainerako ikaskideak haien inguruan jarriko dira, zirkulu handiago batean. Ikasgela bakoitzaren erdigunean dauden bi ikasleek baino ezingo dute hitz egin, eta haiek agertuko dira webkamean.
- Zotz egingo da lurralde bakoitzeko ikasleek alde edo kontrako argudioak emango dituzten.
- Eztabaida hasiko duten ikasleak gaia prestatu duten eta aldeko argudioak emango dituzten bi ikasleak dira.
- Jarraian parte hartuko dute ekipo bereko ikasleak, baina beste lurralde batekoak, eta kontrako argudioak emango dituztenak.
- Orduan, hitz egiteko txandak ezarriko dira. Parte-hartzaileek aurkariak emandako arrazoiak ezeztatu eta haienak defendatuko dituzte.
- Ikasle guztiek nahi dutenean parte har dezakete eztabaidan. Hutsik dagoen aulkian eseriko dira, ikaskide bat ukituko dute, hau zutitu eta aulkia libre utziko du hitz egitez bukatzen duenean.
- Hurrengo saioan, ikasle bakoitzak bere burua eta ikaskide bat ebaluatu beharko du. Ikasle hori irakasleak egokitu diona izango da, hau da, 3. orrialde nagusiko (“EBALUAZIO-ERRUBRIKAK”) eztabaidaren errubrikako galdetegian egokitu diona. Sakatu [hemen](#) galdetegia ikusteko. Ikasle guztiek gutxienez behin parte hartu beharko dute ebaluatuak izateko.

- Eztabaidatzen den bitartean, gaia prestatu zuen ekipoak ematen diren alde edo kontrako argumentu guztiak idatzi beharko ditu (segun eta zer tokatu zaion).
- Irakasleek saioen argazkiak egin eta Padleteko horma digitalera igoko dituzte. Gero, 4. orrialdean txertatuko dituzte: EZTABAIDA-SAIOAK.



## **2. MODALITATEA: Eztabaida ikastetxe bakoitzean egingo da, une ezberdinetan, eta saioa grabatu egingo da.**

- Arrainontziaren dinamika erabiliko da. Ikasgelaren erdian bost aulki jarriko dira, gaia prestatu duen taldeko bi ikasle eta beste taldeko beste bi ikasle eseriko dira haietan. Gainerako ikasleak haien inguruan kokatuko dira, zirkulu handiago batean.
- Zotz egingo da taldeko ikasleek alde edo kontrako argudioak emango dituzten. Alde eztabaidatu behar dutenak hasiko dira.
- Gero, kontrako argudioak eman behar dituzten bi ikasleek parte hartuko dute.
- Hitz egiteko txandak ezarriko dira. Parte-hartzaileek aurkariak emandako arrazoiak ezeztatu eta haienak defendatuko dituzte.
- Ikasle guztiek nahi dutenean parte har dezakete eztabaidan. Hutsik dagoen aulkian eseriko dira, ikaskide bat ukituko dute, hau zutitu eta aulkia libre utziko du hitz egitez bukatzen duenean.
- Hurrengo saioan, ikasle bakoitzak bere burua eta ikaskide bat ebaluatu beharko du. Ikasle hori irakasleak egokitu diona izango da, hau da, 3. orrialde nagusiko (“EBALUAZIO-ERRUBRIKAK”) eztabaidaren errubrikako galdetegian egokitu diona. Sakatu [hemen](#) galdetegia ikusteko. Ikasle guztiek gutxienez behin parte hartu beharko dute ebaluatuak izateko.
- Eztabaidatzen den bitartean, gaia prestatu zuen ekipoak ematen diren alde edo kontrako argumentu guztiak idatzi beharko ditu (segun eta zer tokatu zaion).
- Irakasleek saioen argazkiak egin eta Padleteko horma digitalera igoko dituzte. Gero, 4. orrialdean txertatuko dituzte: “EZTABAIDA-SAIOAK”.



### 3. Fasea: Datuak biltzea eta jakitera ematea

#### 1. Urratsa: Iritzi-inkestak

- 5. orrialdea irekiko da. ETA ZUK, ZER USTE DUZU? izena izango du eta, bertan, inkesta bat txertatuko da ikasleek eztabaida bakoitzaren aurretik eta ondoren alde edo kontrako iritzia duten jakiteko. [Straw Poll](#) tresna erabiltzea gomendatzen da erabiltzeko erraza delako eta erregistratzea beharrezkoa ez delako.



- Ikasle guztiek saio bakoitzaren aurretik eta ondoren inkesta bete behar dute.
- Argudio-testuaren ondorioak gehiengoaren iritzia defendatu behar du. Ekipoek eztabaidaren ondoren gehiengoak eman duen iritzia onartu behar dute, eta iritzi hori islatu beharko dute gero idatziko duten iritzi-artikuluaren ondorioan.



#### 2. Urratsa: Iritzi-artikuluak

- Nazioarteko ekipo bakoitzak iritzi-artikulu bat idatzi beharko du. Bertan, eztabaidagai bakoitzean alde eta kontra emandako argudioak jasoko dira, baita ekipo bakoitzarentzat sortutako azpi-orrialdean inkestetan gehiengoak galdetegietan emandako iritzia ere.
- Lana taula batean antolatuko dute, dokumentu bakoitzaren hasieran. Talde nazional bakoitzak osatu beharko du. Sakatu [hemen](#) dokumentuaren adibide bat ikusteko.



- Irakasleek 6. orrialde nagusia irekiko dute. IRITZI-ARTIKULUAK izena izango du eta, bertan, Padlet horma bat txertatuko dute. Ekipoek argudio-testua eta, gaia irudiztatzeko, copyrightik ez duen irudi bat igoko dute bertara.



### **3. Urratsa: Artikuluen autoebaluazioa eta ko-ebaluazioa**

Artikulu guztiak irakurri eta gero, talde nazionalak haien ekipoaren lana ebaluatu beharko dute, baita haien ikaskideena ere. Horretarako, argudio-testuak idazteko errubrikak dituen galdetgia osatu beharko dute (3. orrialdekoa), eta iruzkinen bat egin dezakete. Sakatu [hemen](#), Driveko kalkulu-orriko errubriken ko-ebaluaziorako tresna erabiliz, irakasleek sortutako galdetgia ikusteko. Sakatu [hemen](#) errubrika ikusteko. Dokumentuaren kopia bat egin behar da errubriken ko-ebaluaziorako tresnan sartu ahal izateko. Halaber, irakasleek iritzi guztien batezbestekoa lor dezakete CoRubrics tresna erabiliz.

#### **PRODUKTUA(K)/AURREIKUSITAKO EMAITZA(K)**

- 6 eztabaida, zuzenean edo bideoan, ikasleek proposatutako gaiei buruz
- 6 iritzi-artikulu

#### **TWINSPECKO TRESNAK/KANPOKO 2.0 TRESNAK**

- Foroa, orrialdeak eta bideokonferentzia
- Tricider, iritzi-inkestak sortzeko tresna
- Straw Poll, galdera bati buruzko inkesta sinpleak egiteko
- Googlen dokumentuak
- Padlet, horma digitalak sortzeko

#### **BENETAKO PROIEKTUETAN EGINDAKO JARDUEREN EREDUA(K) (PRAKTIKA ONEN EREDUAK)**

Jarduerarako sortutako Twinspacea: <https://twinspace.etwinning-training.net/10402/home>